

Abenduko zubia Sagardoetxean: Jardunaldi gastronomiko kulturala

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, abenduaren 1etik 9ra bitartean jardunaldi gastronomiko-kulturala ospatuko da Sagardoetxean, Euskal Sagardoaren Museoa: "Sagardoaren kulturako artelanak" aldi baterako erakusketa eta produktu gastronomiko ezberdinen dastaketa. **Erakusketaren inaugurazioa azaroaren 30ean izango da 12:00etan.**

Abenduko zubian Sagardoetxeako bisita gidatuek Sagardoaren Lurraldeako artista ezberdinen **sagardoaren kulturako artelanak** ezagutzeko aukera izango dute:

- Egurrezko tailuak: Antton Gartzia eta Astigarragako tailako ikasleak.
- Ilustrazioak: Antton Olariaga eta Jokin Mltxelena.
- Abestien partiturak: Miel Joxe Astarbe.
- Eskulturak: Antton Mendizabal, Jon Iñaki Ormazabal eta bere ikasleak.
- Zumezko xextoak: Matxin xextoak.
- Txotxongiloak: Menina tailerra.
- Margolanak: Mari Sol Erice, Luis Telleria eta bere ikasleak, Arantxa Barandiaran...
- Bitxiak: Idoia Lizeaga eta Artepanoma Arte Galeria.
- Loreak: Pacheco Loredenda.
- Beira eta egurrezko lanak: Beñat Ollokiegi.

Honetaz gain, Sagardoaren kulturarekin zerikusia duten produktu gastronomiko ezberdinak dastatu ahal izango ditugu. . Besteak beste, Roxario jatetxeak modu desberdinetan prestaturiko sardin zaharrak eskainiko dizkigu , gaztaina erreak ere izango ditugu eta Lizeaga sagardotegiak eskaintzen digun Barrikotean sagardo berria probatzeko aukera izango dugu.

Ordutegiak:

- 2012ko abenduak 1etik-8ra: 11:00-13:30 16:00-19:30.
- 2012ko abenduak 9: 11:00-13:30.

Tarifak:

- 5€ pertsonako (bisita eta dastaketa barne).
- Dohakoa erakusketa bakarrik ikusteko.